



HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA

2011-2012 IKASTURTEA

1.- SARRERA

Ikastetxeetan eta Administrazioiko beste erakunde batzuetan jarduteko erabiltzen dituen bideak dira Hezkuntza Ikuskaritzaren planak. Halaber, esku-hartzeak egin ahal izateko aukera ematen duten zerbitzuaren barne antolaketa hartzen dute.

Ikuskaritzaren jarduerak lau esparrutan sailkatzen dira:

- Ebaluazioa.
- Arau-kontrola.
- Aholkularitza, orientabidea eta informazioa.
- Lankidetzak.

Ikastetxeei dagokienez, haien helburu nagusia, hots, ikasle bakoitzari kalitateko hezkuntza-erantzun bat ematea eta ikasteko prozesuetan arrakasta lortzea, Baliagarriagoa izan dadin lagungarri izan behar dute Hezkuntza Ikuskaritzaren esku-hartzeak.

Hezkuntza Administrazioari eta beste instituzio eta erabiltzaile batzuei dagokienez, egiten diren errekerimenduei erantzuna ematea eta eskatzen zaizkion txostenak egitea da Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioa.

2011-12 ikasturterako plana 2011-2014ko Hiru Urteko Plan Orokorren aldiko lehenengoa da. Urteko Plan hau egiteko, ondorengo atalak hartu dira kontuan: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko sailburuordetza eta zuzendaritza desberdinen eskaerak, lurralde arteko koordinaziorako batzordeak eta zonalde burutzeke gindako hausnarketak, 2010-2011 ikasturtean Ikuskaritzak egin duen diagnostikoaren ondorioei buruzkoak batez ere, Ikuskaritzaren jardueren hartzailak zein mailatan dauden pozik jakiteko egindako inkesten emaitzak eta Hezkuntza Ikuskaritzari 2010-2011 ikasturtean egin zaizkion barne eta kanpo auditorien emaitzak.

Ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalak, zuzendaritza- eta ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioak, esku-hartze profesionalaren hobekuntzak, kalitatea kudeatzeko sistemak jarraitzeak eta euskararen erabilpena sustatzeak ikasturte honetan garrantzi handiagoa hartuko dute. Gainera, aurreikuspenen arabera, Ikuskaritzari eragiten dion indarreko legeria aldatuko da eta horrek antolaketa-egitura eta egitura funtzionala berrikustea ekarriko du, LOEn Hezkuntza Ikuskaritzak egiteko aurreikusten diren funtzioak errazago betetzeko.

Aurreko ikasturteetan bezalaxe, ikuskarien prestakuntza eta gaurkotzea bermatzea funtsezkotzat jotzen da, dituzten funtzioak aurrera eramateko behar diren arlo guztietan.

Hezkuntza Ikuskaritzak ISO ziurtagiria berri du 2010-2011 ikasturtean eta, horretarako, bere sistema UNE-EN ISO 9001:2008 arau berrira egokitu du.

Gainera, ikasturte honetan ikuskari berrien kopuru handi bat, Bizkaian batez ere, sartuko dela hartu behar da kontuan.

2.- KALITATEARI BURUZKO POLITIKA.

Hezkuntza Ikuskaritzaren kalitateari buruzko politika, UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren baldintza eta Lurralde Arteko Koordinaziorako Batzordeak eta zonalde burutzek hitzartua, Hezkuntza Ikuskaritzaren kalitatearen eskuliburuan azaltzen dena da.

3.- HELBURUAK

- Kalitatea kudeatzeko sistemaren ikastetxeak, zuzendaritza-funtzioa, otsailaren 3ko 22/2009 dekretuaren arabera selekzionatutako pertsonen kasuan, eta irakaskuntza-funtzioa, praktiketako funtzionarioen, zerbitzu-eginkizunen eta eskaeraren arabeko beste egoera batzuen kasuan, ebaluatzea eta diagnostikoaren ebaluazioan parte hartzea.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikastetxeetan eskatzen dituen programa eta proiektuak nola eramaten diren aurrera kontrolatzea.
- Indarreko legeria eta, zehatzago esanda, ikasturtearen hasierako ebazpenak ikastetxeetan betetzen diren kontrolatzea.
- Hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta eginbeharrak, indarreko legeriaren arabera, betetzen diren bermatzea.
- Ikuskaritza-funtzioa ebaluatzea.
- Ikuskariak prestatzea, IV. eranskinean dagoen prestakuntza-planaren arabera.
- Hezkuntza Ikuskaritza antolatzeko eredia berrikustea eta gaurko araudia aldatzeko proposamenak egitea.
- Ikuskaritzaren lanak kudeatzeko aplikazio berri bat ezartzea, barne komunikazioa hobetzeko
- Hizkuntz normalkuntzari laguntza emateko asmoz, euskararen erabilpena sustatzea.
- ISO 9001:2008 ziurtagiriarekin jarraitzea.

4.- 2011-2012 IKASTURTEAN ESKU HARTZEKO OINARRIZKO ILDOAK.

4.1. Ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globala

Apur-apurka indartzea da Ikuskaritzaren etorkizunari begira garrantzi handiagoa izango duen aldaketa. Esku-hartze global horren barruan, ikasle bakoitzari hezkuntza-erantzun onena eskaintzeko lagungarri izango diren antolaketa- eta curriculum-aldagaiak aztertuko dira, ikuskariaren bisitaren bidez gero eta gehiago sakonduko da ikastetxearen ikuspegi globalean eta gero eta antolaketa-egitura eta egitura didaktiko gehiago hartuko dira kontuan, gelen funtzionamenduaren azterketara iritsi arte.

Urteko plan hau indarrean dagoen aldian hasiko da esku-hartze global hau aurrera eramaten. Esku-hartze honen diseinu osoa praktikan jartzeko ikasturte bat baino gehiago beharko den arren, oinarrizko diseinu horrek 2011-2012 ikasturtean amaitu beharko du.

Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioak, ikastetxearen urteko planaren eta memoriaren analisiak eta diagnostikoaren ebaluazioak garrantzi berezia hartuko dute.

4.2. Ikuskarrien ebaluazioa

Azken deialdien bidez sartu den zerbitzu-eginkizunetako pertsonalarekin hasiera eman zaio 2010-2011 ikasturtean ikuskarrien ebaluazioari. 2011-2012 ikasturte honetan zehar aplikazioaren diseinuak bukatuko du eta zerbitzuko pertsonal guztiari ebaluatuko zaio.

4.3. Ikuskaritzaren prestakuntza eta garapen profesionala

Ikuskaritzaren prestakuntza eta garapen profesionala hobetzeko prozesuari ere eman nahi zaio urteko plan honetan garrantzia. Prestakuntza garapen profesionalaren funtsezko zutabeetako bat da eta aurrera eramateko era desberdinak izango ditu.

Ikasturte honetan zerbitzura sartuko diren pertsonen kopuru handia kontuan hartuta, ikuskari berrien prestakuntzari eta tutoretzei garrantzi berezia emango zaie.

Prestakuntza instituzionala deritzona, ikasturtean ostiraletako koordinazio-bileren bidez egiten jarraituko dena, da EAEko Ikuskaritzan normalean gauzatu den beste prestakuntza osagarri bat.

Ikuskaritzaren jardueri edo alderdi esanguratsuenei buruzko denen arteko hausnarketa da 2011-2012 ikasturte honetan bultzatu nahi den beste prestakuntza-modalitate bat. Berrikuntza gisa, prestakuntza hori ikasturtean zehar eztabaidatu eta hausnartzeko foroak martxan jarritz gauzatuko da eta, halaber, aurreko ikasturteetan praktikan jarritako modalitateak ere erabiliko dira: Ikuskaritzak egin beharreko ohiko jardueretarako informazioa eta prestakuntza ematea eta esku-hartze horietan erabili beharreko irizpideak bateratzea.

4.4 Ikuskaritza antolatzeke eredu berrikustea.

Ikasturte honetan Ikuskaritzaren lanak kudeatzeko aplikazio berri bat ezartzen hasiko da.

2011-2012 ikasturterako lehentasunezko beste esku-hartze bat Hezkuntza Ikuskaritzaren araudia egitea izango da. Gaurko araudia ez zaie Hezkuntzaren lege organikotik eratorritako arauak eta lege horrek abenduaren 19ko 15/2008 legean, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako zenbait irakaskuntza-kidego sortzeari buruzkoan (2008-12-29ko EHAA), sartu zituen aldaketei egokitzen.

Prozedurak egokitu eta bideak bilatuko dira, erabakiak hartzeko orduan Ikuskaritza osoaren inplikazioa eta parte-hartzea sustatzeko, antolaketa-egitura desberdinen, Lurralde Arteko Batzordearen batez ere, bidez. Halaber, zonalde eta lurralde burutzek eta Ikuskaritza Nagusiak jarduteko eremuak berrikusi eta egokitu dira. Era berean, Ikuskaritza zonaldeetan ikuskariei ikastetxeak esleitzeko irizpideak konkretatuko dira eta ikuskari guztiek egin beharreko esku-hartzean kontuan hartu beharreko alderdiak zeintzuk diren definituko dira, baita ikuskarrien kolektibo batzuek espezifikoki garatu behar dituzten beste alderdi batzuk ere.

4.5. Euskararen erabilpena sustatzea

Euskararen erabilpena sustatzeari dagokionez, IRALE programaren aukerak erabiliko dira, Ikuskaritzaren lanaren muga barruan, ikuskarrien prestakuntza hobetzeko. Zehatzago, IRALEk antolatutako 5 liberazio-eguneko ikastaro batean parte hartzeko eskaintza egingo da 2011-2012 ikasturtean.

5.- URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA

Urteko Plan hau zein neurritan betetzen den ebaluatzeko, III. eranskinean ezarritakoaren arabera jokatu da.

Ebaluazio hori sistema berrikusteko Ikuskaritza Nagusiak egindako txostenean gehituko da. Txosten horrek, gainera, ondorengo alderdiak jasoko ditu:

- S Kalitatea kudeatzeko sistemari, baita kalitate-politikari eta kalitate-helburuei ere, eragin ahal zioten aldaketak proposatzea.
- Helburuen lorpenean eta prozesuaren eta zerbitzuen adierazleetan izandako emaitzak.
- Barne eta kanpo auditorien emaitzak.
- Prozesu eta zerbitzuetan izandako desadostasunak.
- Zuzentzeko eta prebentzio-jardueren egoera.
- Hartzaileak pozik dauden jakiteko neurketak.
- Proposamenak, kexak eta erreklamazioak.
- Hobekuntzarako, oro har, gomendioak.
- Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio globala.
- Lortutako ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 18a

El Inspector General/Ikuskari nagusia



Izpta. Alfonso Fernández Martínez

I. ERANSKINA

IKASTETXEETAN EGINGO DIREN ESKU-HARTZE INPORTANTEENAK AZALTZEN DITUEN KRONOGRAMA. 2011-2012 IKASTURTEA.

	2011				2012					
	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxo	Apirila	Maiatza	Ekaina
A motako ikastex.		EHG Bisita			EHG (Bakarrik beharrezkoa bada)				EHG Bisita	
B motako ikastex.			EHG + IUP (JARR.) + AUTOEB (Zuzend.)		ZUZEND Ebal / + AUTOEB. (Ik. Buruak eta idazkar.)					
C motako ikastex.			EHG + IUP + AUTOEB (Zuzend.)		IUPren analisia itzultzea	EHG (Bakarrik beharrezkoa bada)				
Diagnostiko ebaluazioa duten ikastex.		EbaDIAG 2011 (Ikastetxeek IT+HEHP)			Ikuskaritzak IT + HEHP aztertzen ditu	Bilera ikastetxeetan kasu berezietan				
		Ikuskaritzak ikastetxeak biltzen ditu zonaldeka + Ikuskaritzak ISEI-IVEIko txostenak aztertzea								
KGS duten ikastex.									Bisita	

A motako ikastetxeak: HHko, LHko, DBHko, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta HHko ikastetxe publikoak, 3 urterako edo denbora gutxiagorako izendatutako zuzendaritzekin, eta itunpeko ikastetxeak. Bakarrik Haur Hezkuntza duten ikastetxeen bisitak 2. eta 3. hiruilekoetan egingo da.

B motako ikastetxeak: ikastetxe publikoak, 2009ko uztailean leian 4 urterako izendatutako zuzendaritzekin. Guztira 174 ikastetxe dira.

C motako ikastetxeak: ikastetxe publikoak, 2010eko uztailean leian 4 urterako izendatutako zuzendaritzekin. Guztira 99 ikastetxe dira.

II. ERANSKINA

2011-2012ko IKUSKARITZA-PLANAREN PROZESU ETA AZPIPROZESUAK APLIKATZEKO ZEHAZTAPENAK

PR Ebaluazioa

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesuaren taldea	Azpiprozesu a egitea	Ikuskariak jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Ikastetxeen ebaluazioa										
0201 01	Kalitatea kudeatzeko sistemaren ebaluazioa (SGC - Kalitatea Hezkuntzan)	1. eta 2. hiruhilekoa	Ikastetxeari buruzko txostena		Kalitatea kudeatzeko sistema duten ikastetxeak	JA Romero	Marina Garcia M. Alonso K. Totorikagüena J. A. Fernández X. Egizabal	Erreferentziak o ikuskariak + taldea	EAE	
Pertsonen ebaluazioa										
0201 20	Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa	1. eta 2. hiruhilekoa	Banakako txostena		4 urterako izendatutak o zuzendari guztiak	A. Fernández I. Cereceda	M. Ruiz S. Ayarza M. Alonso K. Mugerza M. Bonet I. Echeverria A. Unamuno J.A. Ayucar	Erreferentziak o ikuskariak + taldea	Zonaldea	
0201 25	Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa	Ikasturte osoa	Banakako txostena 2. urtearen bukaeran		Zerbitzu-eginkizuneari ari diren ikuskariak (azken deialdiak)	JA Romero A. Fernández	Ji Molinuevo M. Bonet T Murguialday	Lurralde buruak, zonalde buruak, tutoreak	Lurraldea	

PR Esku-hartze globala ikastetxeetan

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesuaren taldea	Azpiprozesua egitea	Ikuskariek jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Esku-hartzearen ardatzak										
	Ikastetxearen Urteko Plana eta memoria	Ikastetxeetan esku-hartze globala egiteko emandako argibideen arabera gauzatuko da.	I. Cereceda				R. Juan L. Barrutia P. Macho A. Oianguren	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
	Ikasleen ikasketaren emaitzak									
	Zuzendaritza-funtzioa									
	Ikasleen eskubide eta betebeharrak									
AZ lotutakoak										
0201 05	Diagnostikoaren ebaluazioa.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.	A. Fernández J.Granja				R. Juan B. Díaz P. Macho JM Santiago L. Barrutia G. del Río A. Oianguren	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0201 10	Zerbitzu-eginkizunak.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.	I. Cereceda				P. Antoñana A. Mendiola M Bermeosolo I. Echeverria	Erreferentziak o ikuskariak + taldea	Lurraldea	
0201 13	Praktiketako funtzionarioen ebaluazioa (LEP).	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.	I. Cereceda				M. Ruiz R. Mesanza P. J. Macho M. Bonet X. Balerdi	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 40	Udal eskolen eta 0-3 urteko Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuen kontrola eta jarraipena.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.	I. Cereceda				R Saez de Cortazar J Solabarrieta M. Miguel A. Unamuno. A. Oianguren	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 41	Haur-eskolen kontrola eta jarraipena.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.	I. Cereceda				R Saez de Cortazar J Solabarrieta M. Miguel A. Unamuno. A. Oianguren	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	

PR Esku-hartze globala ikastetxeetan

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu aren taldea	Azpiprozesu a egitea	Ikuskariak jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
AZ lotutakoak (jarraipena)										
0202 59	Zuzendaritza-taldeak izendatzeko proposamenen kontrola.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.				F. Bilbatua	M. García J.A. Otadui F. Martín X. Egizabal	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 74	Arautu gabeko prestakuntza-programen kontrola Helduen Hezkuntzako ikastegi publikoetan.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.				I. Cereceda	R Saez de Cortazar L. Orueta X. Etxebarria P. Carnicero	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 81	Ikasleen diziplina-espedienteen kontrola.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.				J. A. Romero	Jefes-as Territoriales	Erreferentziak o ikuskariak	Lurraldea	
0202 86	Ikasleen absentismoaren kontrola.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.				I. Cereceda	M. García L. Barrutia S Ayarza P. Carnicero	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 87	Ikasleen arteko larderiak eta tratu txarrek duten eraginaren kontrola eta jarraipena.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.				A. Fernández	M. T. Ruiz R. Aliaga L. Isasa B Manzarbeitia JM Santiago L. Torrealdai	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 93	Maila guztietako akta akademikoen kontrola eta ikuskatzea.	AZ beraren eta ikastetxeetan egin beharreko esku-hartze globalerako argibideen arabera.				J. Granja	C. Aparicio N. Zabaleta J.A. Rey J A Fernández	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	

PR Esku-hartze globala ikastetxeetan

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesuaren taldea	Azpiprozesu a egitea	Ikuskarietarako jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
AZ Eskaera gisa sortu ahal den esku-hartze globalari lotutakoak										
0201 11	Irakaslea lanpostuaren perflera nola egokitzen den ebaluatzea.	Ikasturte osoa,eskaeraren arabera	Banakako txostena	Eskaeraren arabera	Eskaera guztiak		Lurralde buruak	Erreferentziak o ikuskariak	Lurraldea	
0201 12	Irakaslea irakaskuntzarako gai den ebaluatzea.	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera	Banakako txostena	Eskaeraren arabera	Eskaera guztiak	A. Fernández	J.I. Molinuevo I. Tazón A. Anasagasti I. Bernaola J. A. Rey A. Paniego	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 08	Etxean arreta emateko programaren kontrola eta jarraipena.	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera	Banakako txostena	Eskaeraren arabera	Eskaera guztiak		Lurralde buruak	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 24	Eskolatzeko programa osagarrien eskaeren balorazioa.	Ikasturte osoa, eskaeraren arabera	Banakako txostena	Eskaeraren arabera	Eskaera guztiak	J. Granja	M. García J. Jiménez Z. Isuskiza M S de Urturi	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 53	Ikastetxe publikoetako irakasleen eta hezkuntza-pertsonalaren absentismoaren kontrola.	Ikasturte osoa	Banakako txostena Lurralde txostena	Kasuen arabera	Ikastetxe publiko guztiak	J. A. Romero	J. Pérez J. A. Sánchez M. Muñiz J. A. Ayucar D. Mazuela	Erreferentziak o ikuskariak + taldea	Zonaldea/ Lurraldea	
0202 73	Norbanakoaren curriculum-egokitzapenen (NCE) eskaeren kontrola eta jarraipena.	1. hiru hilabetea	Banakako txostena	20/12	Proposamen guztiak	J Granja	C Aparicio A.F. González B Manzarbeitia D Mazuela	Ikuskarien taldea	Lurraldea	

PR Esku-hartze globala ikastetxeetan

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu aren taldea	Azpiprozesu a egitea	Ikuskariak jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
AZ Eskaera gisa sortu ahal den esku-hartze globalari lotutakoak (jarraipena)										
0202 91	Ikastetxe publikoetako pertsonalaren kontrako erasoen kontrola eta jarraipena.	Ikasturte osoa	EAE mailako txostena	15/09	Dauden kasuak	A. Fernández	Lurralde buruak	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	

PR Eskaerei eman beharreko arreta

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu aren taldea	Azpiprozesu a egitea	Ikuskariak jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Hezkuntza Sailak eskatu eta Ikuskaritzak planifikatzen dituen jarduerak										
0204 01	Ikuskaritzak planifikatutako lankidetzak-jarduerak.	Jasotako eskaeraren eta zehazten diren argibideen arabera.				A. Fernández	Ikuskaritza Nagusia edo eskuordetzen duen taldea	Argibideen arabera		
Hartzaileei eman beharreko unean uneko erantzuna.										
0204 02	Hezkuntza Saileko arduradunek eskatutako txostenak.	Ikasturte osoa	Kasuari buruzko txostena, eskaeraren arabera	Hilabete epea	Eskaera guztiak	J. A. Romero	Lurralde buruak	Erreferentziak o ikuskariak edo izendatutako ikuskaria	Zonaldea	

PR Eskaerei eman beharreko arreta

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesuaren taldea	Azpiprozesu a egitea	Ikuskariak jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Indarreko legeriak eskatutako jarduerak.										
0202 07	Hasierako Lanbide Trebakuntza programen kontrola eta jarraipena.	Iraila ekaina - uztaila	Banakako txostena	Eskaeren arabera	Eskaera guztiak	F. Bilbatua	M. García J. Jiménez Z. Isuskiza M S de Urturi	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 55	Eskola-egutegiaren kontrola eta jarraipena.	2. eta 3. hiruilekoa	Ikastetxeari buruzko txostena	30/06	Ikastetxe guztiak	J. A. Romero	J. Pérez J. A. Sánchez B. Díaz J.A. Otadui J. A. Ayucar	Ikuskarien taldea	Lurraldea	
0202 60	Zuzendaritzakoak ez diren karguak izendatzeko proposamenen kontrola.	1. hiruilekoa	Ikastetxeari buruzko txostena	20/12	Ikastetxe publiko guztiak	J. A. Romero	J. Pérez J. A. Sánchez J. Otadui F. Martín J. A. Ayucar D. Mazuela	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 83	Euskaratik salbuesteko kasuen kontrola.	1. hiruilekoa	Banakako txostena	20/12	Eskaera guztiak	J Granja	R Abasolo L. Puente E Valencia M.M. Olabarriaga R. Bergaretxe	Ikuskarien taldea	Lurraldea	
0202 92	Pertsonalaren eta ikasleen greben kontrola.	Ikasturte osoa	EAE mailako txostena	Kasuen arabera	Eragindako ikastetxe guztiak	JA Romero	J. Pérez J. A. Sánchez Z. Isuskiza J. A. Ayucar D. Mazuela	Erreferentziak o ikuskariak	Zonaldea	
0202 95	Enplegatu publikoaren diziplina-erregimenaren aplikazioa.	Ikasturte osoa	Banakako txostena	Kasuen arabera	Ikastetxe publikoak	A. Fernández	J.I. Molinuevo I. Tazón A. Anasagasti I. Bernaola J. A. Rey A. Paniego	Prestakuntza duten ikuskariak	EAE	

PR Eskaerei eman beharreko arreta

KODEA	Azpiprozesua	Egiteko aldia	Emitza		Aplikazio-eremua	Arduraduna	Azpiprozesu aren taldea	Azpiprozesu a egitea	Ikuskariek jarduteko eremua	Oharrak
			Txosten motak	Data						
Indarreko legeriak eskatzen dituen jarduerak (jarraipena)										
Hezkuntza Sailarekin lankidetzan egiteko jarduerak (kodetu gabe)										
	Atxikipenak	Zehazten diren argibideen arabera								
	Batxilergoko sari bereziak	Zehazten diren argibideen arabera								
	Hezkuntza Marko Hirueledun	Zehazten diren argibideen arabera								
	Jazarpenaren Aginduan oinarrituriko bitartekaritza	Zehazten diren argibideen arabera								
	USP (Hautaprobak)	Zehazten diren argibideen arabera								
	Irakasleen LEP	Zehazten diren argibideen arabera								
	LH sarbide probak	Zehazten diren argibideen arabera								
	Harrera-prozesuak	Zehazten diren argibideen arabera								

III. ERANSKINA

(IKUSKARITZA PLANAREN HELBURUAK ETA ADIERAZLEAK)

Helburua	Adierazlea	Onartzeko irizpidea	Epea	Arduraduna
Ebaluatzea: <ul style="list-style-type: none"> Kalitatea kudeatzeko sistemaren ikastetxeak, 	Auditoria egin zaien ikastetxeek auditoreen lanaz egiten duten balorazioa (0tik 10erako eskalan).	Balorazioaren batezbestekoa 7tik gorakoa 1., 2. eta 3. ataletan (honetan azpialak kontuan hartu gabe).	2012-06-30	IKUSKARITZA NAGUSIA
<ul style="list-style-type: none"> Zuzendaritza-funtzioa, otsailaren 3ko 22/2009 dekretuaren arabera selekzionatutako pertsonen kasuan. 	Ikastetxearen Urteko Plana hobetu edo behar bezala egiten jarraitu duten ikastetxeen ehunekoa (2009an selekzionatutako zuzendariak dituzten ikastetxeak).	% 80	2012-02-29	IKUSKARITZA NAGUSIA
<ul style="list-style-type: none"> Irakaskuntza-funtzioa, praktiketako funtzionarioen, zerbitzu-eginkizunen eta eskaeraren arabera behar den guztiaren kasuan. Diagnostikoaren ebaluazioan parte hartzea. 	----			
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikastetxeetan eskatzen dituen programa eta proiektuak nola garatzen diren kontrolatzea.	----			
Indarreko legeria eta, zehatzago, ikastetxeetan ikasturtearen hasierako ebazpenak betetzen diren kontrolatzea.	----			
Hezkuntza-erkidegoaren eskubide eta eginbeharrak errespetatuko direla bermatzea, indarreko legeriaren arabera.	Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen hutsegiteak kontrolatzeko protokolo bat egin duten ikastetxeen ehunekoa. (*)	% 100	2012-06-30	IKUSKARITZA NAGUSIA
	Ebaluatzeko irizpideak hezkuntza-etapa guztietan aditzera eman dituzten ikastetxeen ehunekoa (*)	% 100	2012-06-30	IKUSKARITZA NAGUSIA
	Elkarbizitza bermatzeko neurriak ezarri dituzten ikastetxeen ehunekoa. (*)	% 100	2012-06-30	IKUSKARITZA NAGUSIA

Ikuskaritza-funtzioa ebaluatzea.	Ikuskaritza-funtzioa hobetzeko emandako balorea (0tik 10erako eskala).	7	2012-07-31	IKUSKARITZA NAGUSIA
Ikuskariei prestakuntza ematea, IV. eranskinean dagoen prestakuntza-planaren arabera.	Ikasturte honetan egin diren prestakuntza-jardueren balorazio orokorra (0tik 10erako eskala).	>6	2012-07-31	IKUSKARITZA NAGUSIA
Hezkuntza ikuskaritza antolatzeke eredu berrikustea eta gaurko legeria aldatzeko proposamenak egitea.	Dekretu eta aginduaren proposamena.	Zirriborroa martxoaren 30a baino lehenago onartzea.	2012-03-30	IKUSKARITZA NAGUSIA
Ikuskaritzaren lanak kudeatzeko aplikazio berri bat ezartzea.	Ikuskaritzak aplikazio berria erabiltzea eraginkorra den baloratzea (0tik 10erako eskala).	> 7 hartzailleak pozik dauden neurtzeko inkestan.	2012-06-30	IKUSKARITZA NAGUSIA
ISO 9001:2008 ziurtagiriarekin jarraitzea.	Barne eta kanpo auditoria 2012an.	Barne eta kanpo auditoria ikasturteak bukatu aurretik egitea.	2012-07-31	IKUSKARITZA NAGUSIA
Euskararen erabilpena sustatzea, hizkuntz normalkuntzari laguntza emateko asmoz.	Ikastaroen erabilgarritasun praktikoa baloratzea.	> 7 hartzailleak pozik dauden neurtzeko inkestan.	2012-06-30	IKUSKARITZA NAGUSIA

(* Esku-hartze globala egiten den ikastetxeen guztizkoaren gainean kalkulaturako ehunekoa.

IV. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA-PLANAREN JARDUERAK

PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN IZENA	HELBURUAK	EGITEKO ALDIA	ORDU KOP.	PARTE-HARTZAILEAK
HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN ANTOLAKETA-ALDERDIEI SARRERA	Ikuskaritzaren antolaketa eta hiru urteko eta urteko planen ildo nagusiak ezagutzea.	2011ko IRAILA	3	IKUSKARI BERRIAK
ERREFERENTZIAKO IKUSKARIAREN FUNTZIO ETA EGINKIZUNAK	Ikuskariak bere erreferentziako ikastetxeetan egin beharreko esku-hartzea eta esku-hartze globalaren plana zehatz-mehatz ezagutzea.	2011ko IRAILA	2:30	IKUSKARI BERRIAK
IKUSKARITZAREN SISTEMA INFORMATIKOARI SARRERA	Ikuskaritzaren lana egiteko dauden tresnak erabiltzeko behar den euskari teorikoa eskuratzea, barneko WEB orrian diseinatutako kontsultatzeko sistema eta Ikuskaritzan diseinatu eta ezarritako azpiprozesu guztiak erakutsiz.	2011ko IRAILA	2:30	IKUSKARI BERRIAK
ALDERDI JURIDIKOAK ADMINISTRAZIO-PROZEDURA: ALDERDI OROKORRAK.	Ikuskariaren jardura definitzea administrazio-prozeduraren eta euskal funtzio publikoaren esparru orokorrean.	2011ko IRAILA	2:30	IKUSKARI BERRIAK
IRAKASLEEN FUNTZIO ETA ARDURAK DIZIPLINA-ERANTZUKIZUNAREN ALDERDI OROKORRAK	Irakasleen betebeharrak, beren funtzioetan jardutean, urratzen badira, aplikatu beharreko administrazio-prozedura ezagutzea.	2011ko IRAILA	2:30	IKUSKARI BERRIAK
PERTSONAK, PROGRAMAK ETA IKASTETXEAK EBALUATZEKO PROZEDURA.EZAUGARRI ETA EREDUAK. DIAGNOSTIKOAREN EBALUAZIOA.	Irakaskuntza- eta zuzendaritza-pertsonala, Hezkuntza Sailaren programak eta ikastetxeak ebaluatzeke ereduak ebaluatzeke Hezkuntza Ikuskaritzak erabilitako prozedurak ezagutzea.	2012ko URTARRILA	5	IKUSKARI BERRIAK
IKUSKARITZAREN TXOSTENAK: EZAUGARRIAK ETA TIPOLOGIA.	Ikuskaritzaren txosten-ereduak ezagutzea.	2012ko OTSAILA	5	IKUSKARI BERRIAK
ESKU-HARTZE PROFESIONALERAKO IRIZPIDEAK BATERATZEA.	Jarduteko irizpideak bateratzea Urteko Planean aurreikusitako esku-hartzeetan.	2011ko URRIA- 2012ko EKAINA	30	IKUSKARI GUZTIAK
IKUSKARITZAREN JARDUERA EDO ALDERDI ESANGURATSUENEI BURUZKO BATERAKO HAUSNARKETA.	Urteko Planean aurreikusitako esku-hartzeei buruzko eztabaidak egitea ikuskarien talde espezifikoetan edo zonaldeetan.	2011ko URRIA- 2012ko EKAINA	30	IKUSKARIEN MULTZOAK

PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN IZENA	HELBURUAK	EGITEKO ALDIA	ORDU KOP.	PARTE-HARTZAILEAK
EUSKARA TXOSTENAK ERREDAKTATZEKO TEKNIKA ETA BALIABIDEAK. GAURKOTZEA, IKUSKARITZAREN OHIKO IDAZKIETAN EUSKARAZ GEHIEN ERABILTZEN DEN TERMINOLOGIA BATERATZEKO.	Ikuskaritzaren txostenak euskaraz egiteko erabili behar diren teknikak eta hizkuntz baliabideak birpasatzea. Ikuskaritzak normalean egiten dituen idazkietan terminologia egokiena erabiltzeko ikuskarien prestakuntza gaurkotu eta handitzea.	2012ko OTSAILA-MARTXOA	25 X 2	BI IKUSKARI TALDE
BITARTEKARITZAN PRESTAKUNTZA JASOTZEA, LANPOSTUAN LAN- EDO SEXU-JAZARPENA GERTATZEN DENEAN ESKU HARTZEKO.	Gatazkak konpontzeari eta bitartekaritzari buruzko prestakuntza ikuskari talde bati ematea.	2011ko IRAILA	24	10 IKUSKARIA
EBALUAZIOA ETA IKUSKATZEA ZUZENDARITZA- ETA IRAKASKUNTZA- FUNTZIOAREN EBALUAZIOA. IKASTETXEEN EBALUAZIOA.	Zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko teknikan ikuskariek duten prestakuntza gaurkotu eta handitzea, elkarrizketen bidez. Irakasleen ebaluazioari buruzko prestakuntza jasotzea. Ikastetxeak ebaluatzeko ereduak ezagutzea.	2011ko ABENDUA- 2012ko EKAINA	15	EBALUAZIOAN PARTE HARTZEN DUTEN IKUSKARI GUZTIAK
ARAUDIAREN GAURKOTZEA	LOE irakaskuntzetako dokumentazio akademikoari eta administrazio-dokumentazioari buruzko irizpideak prestatu eta bateratzea. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatua EAEn aplikatzea.	2011ko URRIA- 2012ko EKAINA	10	IKUSKARI GUZTIAK
DIZIPLINA-ESPEDIENTEAK	Diziplina-espedienteak irekitzeko ikuskari talde bat sortzea.	2012ko URTARRILA- EKAINA	10	IKUSKARIEN MULTZOA
IKUSKARITZAREN LANALDIA (2010-11)	Hiru Urteko Plana, Urteko Plana eta esku-hartze globala aurkeztea. Ikuskaritzako langiroa hobetzea.	2011ko IRAILA	5	SAIO 1 IKUSKARI GUZTIEKIN
IKUSKARITZAREN LANALDIA (2011-12)	Urteko Plana aurkeztea.	EKAINA- UZTAILA 2012	5	SAIO 1 IKUSKARI GUZTIEKIN